

## NAFARROAKO GERIATRIA ETA GERONTOLOGIA ELKARTEAREN XII. BILTZARRA ZAHARTZAROAREN XIX. BILTZARRA

Iruñean, 2020ko maiatzaren 7-8an

### KOMUNIKAZIOEN AURKEZPENA

JASOTZEKO AZKEN EGUNA: 2020ko apirilaren 6a

<b>IZENBURUA</b>	
<b>EGILEAK</b>	
<b>LANTOKIA</b>	
<b>HIRIA</b>	

**LABURPENA:** (350 hitz, gehienez)  
(*Sarrera/Azterlanaren asmoa/Helburua/Metodoak/Emaizak/Ondorioak*)

Árloa: psikosoziala/sanitarioa      Hizkuntza: gaztelania/euskara      Aurkezteko modua: ahoz/posterra

**EGILE-AURKEZLEA:** IZENA:

HELBIDEA:

POSTA-KODEA - HIRIA - PROBINTZIA:

OGIBIDEA:

LANTOKIA:

TELEFONOA:

E-POSTA:

## KOMUNIKAZIOAK AURKEZTEKO ARAUAK

Laburpenak biltzarraren webgunean agertzen den eskabide-orriaren bitartez bidali beharko dira. Ez da faxez bidalitako laburpenik onartuko.

Laburpena bidaltzean, arauak onartuko dira. Laburpenak gaztelaniaz/euskaraz idatzi beharko dira, eta honako egun hau baino lehen iritsi beharko dira Idazkaritzara: **2020ko apirilaren 6ko 23:59an (Espainiako ordu penintsularra).**

Egun horretatik kanpo jasotako komunikazioak edo arau hauek betetzen ez dituztenak ez dira onartuko. Komunikazioa aurkezten duena : **2020ko apirilaren 6a** baino lehen egon beharko da biltzarrean inskribatuta, **bestela ez delako komunikazioa bera argitalpen ofizialean agertuko**. Komunikazioek sei egilekide izango dituzte gehienez. Egile-aurkezle berberak **bi komunikazio** aurkeztu ahal izango ditu, **gehienez ere**.

Aurkeztutako komunikazioen laburpenak Batzorde Zientifikoak aztertuko ditu. Aztertu ondoren, onartu edo gaitzetsi diren jakinaraziko zaie egileei. Laburpenak bidaltzean, egileak behar besteko baimena ematen du argitaratzeko. Aurkezteko modua aukeratu ahal izango duen arren, Batzorde Zientifikoa izango da onartutako aurkezpen-mota zein den erabakitzen duena. Idatzitako laburpenen luzera ez da **350 hitzetik** gorakoa izango. Lanak honelaxe egituratuko dira: helburuak, metodoa, emaitzak eta ondorioak. Ez da sartuko ez taularik ez irudirik. Honako hauxe jartzeko eremuak daude: IZENBURUA, EGILEEN IZENA, LANTOKIA... Mesedez, **EZ jarri datu horiek** lanaren/laburpenaren testurako atondutako lekuan.

Era berean, Idazkaritza Teknikoak jaso izanaren agiria ere bidaliko dio lehenengo egileari, posta elektronikoaren bidez. Datuak betetzean adierazten duen e-posta lanaren edozein komunikazio edo baieztapen bidaltzeko erabiliko da. Oso garrantzitsua da e-posta ondo dagoela egiaztatzea eta beti-beti e-postaren helbide berbera erabiltzea.

Denbora eta antolaketa arrazoiak direla eta, biltzarra antolatzen duen batzordeak ahozko komunikazio batzuen formatua poster formatura aldatu ahal izango du.

Komunikazioak honako egun honetara arte bidali ahal izango dira:

- 1.- Egun horren ostean : **2020ko apirilaren 6a** bidalitako komunikazioak ez dira onartuko.
- 2.- Izenburua MAIUSKULAZ idatzi, puntu eta amaitu jarri gabe.
- 3.- Egileak, Lantokia eta Hiria erantsi.
- 4.- Gehienez ere 350 hitz dauzkan laburpena idatzi Arial 11n.
- 5.- Arloa jarri: psikosoziala edo sanitarioa.
- 6.- Azkenik, "egilea/posterraren aurkezpena/komunikazioa" datuak bete.

**Era berean, [www.zahartzaroa.equinoccioeventos.com](http://www.zahartzaroa.equinoccioeventos.com) webgunearen bidez ere bidali ahal izango dira komunikazioak, Biltzarreko Idazkaritza Teknikoaren eta Bidaia Agentzia Ofizialaren on line sistemaren bitartez. Bertan, atebide seguruko ordainketa-sistema ere badago eskuragarri.**

Mesedez, eskabide-orri hau bete adierazitako arauen arabera eta  
Idazkaritza Teknikora zein Bidaia Agentzia Ofizialera bidali:  
**EQUINOCCIO BIDAIAK**  
Prim kalea 29 20.006 DONOSTIA  
Tel.: 943 216580 e-posta: [c.puy@reservasequinoccioviajes.com](mailto:c.puy@reservasequinoccioviajes.com)